



UDA IKASTAROAK
CURSOS DE VERANO
SUMMER COURSES

Deialdia, UPV/EHUko eta Bordeleko Unibertsitateko ikasleentzat, Saltillo eskola-ontziaren mugaz gaindiko itsas zeharkaldian parte hartzeko

Uda ikastaroa: "Itsasora begiratzen duen Unibertsitatea: ezagutzen zehar nabigatzen Saltillo eskola-ontzian"

Lehen aldiz, aukera duzu uda ikastaro bat itsasontzi batean egiteko; zehazki, UPV/EHUko Nautika Eskolaren Saltillo eskola-ontzian.

Esperientzia zinez harrigarri eta ahaztezin bat bizi nahi baduzu, ontziratu zaitez tripulante gisa Santurtzi (Bizkaia) eta Donibane Lohizune (Lapurdi) lotuko dituen mugaz gaindiko 5 eguneko itsas bidaldi batean. **Bidal iezaguzu eskaera 2022ko maiatzaren 31 baino lehen.**

Deialdi honetan hautatutako ikasleek inolako kosturik gabe egingo dituzte ikastaroa eta hari lotuta programatutako jarduerak: itsasontzirako joan-etorriak Donostiatik, Bilbotik edo Bordeletik, 5 eguneko prestakuntza esperientzia Saltillo eskola-ontzian (alojamendua eta otorduak itsas bidaldian zehar), eta lehorrean egingo diren hitzaldietan eta antolatuko diren bisita eta txangoetan parte hartzeko aukera. Gainerako gastuak ikasle bakoitzaren kontura izango dira.

1. Zertan datza zehazki uda ikastaroa (mugaz gaindiko zeharkaldia)?

Deialdian hautatutako ikasleak bi taldetan banatuko dira, 8 laguneko bi tripulazio osatzeko:

- Tripulazioa: uztailaren 1etik 16ra (Santurtzitik Donibane Lohizunera)
- Tripulazioa: uztailaren 16tik 20ra (Donibane Lohizunetik Santurtzira)

Ontziaren tripulazioa osatzen dute kapitainak eta Nautika Eskolako 6 ikaslek, eta itsasontzi barruan emango den prestakuntzaz arduratuko dira.

Ikasleen tripulazioek bi motatako jarduerak egingo dituzte:

- Prestakuntza jarduerak itsas zeharkaldian Saltillo eskola-ontzian: modu aktibo eta kolaboratibo batean, oinarrizko ezagutzak eta trebetasunak eskuratuko dituzu marinel lanbidean, portuko maniobretan, belak igo eta jaisteko lanetan, eta antzinako itsasontzi batean eginiko bela nabigazioan. Gainera, nabigazioari lotutako zaintza, posizionamendu eta segurtasun lanetan trebatuko zara.
- Hitzaldiak eta bisitak lehorrean, zerikusia dutenak UPV/EHUk itsasoari lotuta zientziaren, prestakuntzaren eta dibulgazioaren alorretan egiten duen lanarekin.

[PROGRAMA](#)

2. Deialdian parte hartzeko baldintzak:
 - UPV/EHUko edo UBx-eko ikaslea izatea
 - Igeri egiten jakitea
3. Balorazio irizpideak eta hautapen prozedura:

Ikastaroko zuzendariak eta UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioaren ordezkari bat arduratuko dira ikasleak hautatzeaz.

Uda ikastaro honetan parte hartu nahi duten eta baldintzak betetzen dituzten pertsonak motibazio gutun bat bidali beharko dute, eta, hautatzen badituzte, bigarren fasera igaroko dira: elkarriketa pertsonala.

Faborez, kontuan izan motibazio gutunean harremanetarako datu guztiak eman behar dituzula, eta zer hizkuntzatan moldatzen zaren adierazi, eskaera motibatzeaz gainera, ondoren aipatzen diren irizpideen arabera:

- a) Lehentasuna izango dute hezkuntza berrikuntzarako proiektuetan edo mugaz gaindikoetan parte hartu duten ikasleek, edota itsasoari lotutako prestakuntza edo proiektuetan parte hartzen dutenek, UPV/EHUk, UBx-k edo beste erakunde batzuek antolatutakoak.
- b) Motibazio gutuna (I. fasea) elementu hauen arabera puntuatuko da:
 - Azaldutako motibazioa, proiektu pertsonala edo kolektiboa.
 - Hezkuntza berrikuntzarako proiektuetan edo mugaz gaindikoetan parte hartzea, itsasoari lotutako proiektuak lehenetsita.
 - Sare sozialetako komunikazioarekin zerikusia duten egitasmoetan parte hartzea / esperientzia elkartean, erakundeen... sareen kudeaketan.
 - Esperientzia nautikoa (halaber, uretako kirolak, sorospena, etab.)

Gutuna baloratuko da gehienez 10 punturekin, eta hautagaiak ordenatzeko balioko du. *Motibazio gutunean puntuazio onena lortzen duten 20 pertsonak bigarren fasera igaroko dira: elkarriketa pertsonala.*

- c) Elkarriketa pertsonala (II. fasea) baloratuko da gehienez 10 punturekin.
- d) Hautapena: bi faseetako puntuazioak konbinatuta, 16 lagunek osatutako zerrenda bat osatuko da (ordezkoak ere hautatuko dira).

Jar zaitez harremanetan gurekin

Ikastaro honetan parte hartzeko interesa baduzu, gaur bertan bete dezakezu [inprimaki hau](#), eta zure kontsultak planteatu. Gero, 2022ko maiatzaren 31 baino lehen, zure hautagaitzaren dokumentazio osoa bidali beharko diguzu (balorazio-irizpideak aipatzen dituen motibazio-gutuna) e-posta honetara:

oceani3@euskampus.eu gaian [CANDIDATURA SALTILLO] adieraziz.